



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila : ETXEBIZITZA

Espediente zenbakia: 09-4177

OGENBARRENAKO BURUTZAPEN-SEKTOREAN SUSTAPEN PRIBATUKO BOE-KO 52 ETXEBIZITZA ERRENTAN HARTZEKO ESKUBIDEA IZATEKO ZOZKETAN PARTE HARTUKO DUTEN ESKATZAILEEN ONARPENERAKO BALDINTZA-AGIRIA.

ZOZKETAREN JARDUKETA-PLANA:

- * Zelaieta Zentroan kokatutako etxebizitza-bulegoan eskabideak aurkezteko epearen hasiera.* **2009ko irailaren 28a**
- *Etxebizitzak eskuratzeko interesa duten pertsonen eskabideak aurkezteko gehienezko epea.* **2009ko azaroaren 13a**
- *Behin-behineko zerrendak argitaratzea.* **2009ko azaroaren 30a**
- *Zerrendak zuzentzeko eta alegazioak jartzeko gehienezko epea.* **2009ko abenduaren 16a**
- *Behin betiko zerrendak argitaratzea.* **2009ko abenduaren 23a**
- * Adjudikaziodunen zerrendaren zozketa, notarioaren aurrean: eguna behin betiko zerrendak argitaratzean zehaztuko da. Zerrenda horiek taldeka bereiziko dira, eta horiek, aldi berean, kupoetan; hala badagokio, bereizitako kupo bakoitzeko, itxaron-zerrenda osatuko da.*



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

**Zozketa honen bidez adjudikaziodunak nortzuk diren zehaztu ostean, prozedura berri bati ekingo zaio:*

-Adjudikaziodun guztiek agiri bidez egiaztatu beharko dute Oinarri hauetan eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuei buruzko araudian zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Baldintza horiek betetzen ez badituzte ezingo dira Udalak antolatzen dituen etxebizitza babestuko edozein erregimeneko hurrengo bi esleipen-prozesuetara aurkeztu.

Ogenbarrenako burutzapen-sektorean babes ofizialeko 52 etxebizitza, horiek dagozkien garaje eta trastelekuekin, errentan hartzeko baldintzak.

LEHENENGOA.- XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea Ogenbarrenako burutzapen-sektoreko babes ofizialeko 52 etxebizitza **5 urte luzaezinez errentan hartzeko** prozesua erregulatuko duten baldintzak zehaztea da.

Sustapen honetan babes ofizialeko 52 etxebizitza izango dira, bi logelatako 42 etxebizitza eta logela bateko 10, azken hauetako 3 mugikortasun urritu iraunkorra duten pertsonentzako.

Etxebizitza horiek sukaldea izango dute, baina **ez dira altzariz hornituta egongo.**

52 etxebizitzatik 3 beste bizileku bat hartzeko eskubidearen onuradun posible hirurentzako, Amorebieta-Etxanoko Udalak zehaztutakoarentzako, gordeko da. Azken horiek indarrean dagoen legediko baldintzak eta betekizunak beteko balituzte babes ofizialeko 52 etxebizitzetako adjudikaziodunen behin betiko zerrendan sartuko lirateke.

5 urte luzaezinez errenta amaitzen bada, eta eskubidearen onuraduna jarraitzen bada, hurrengo esleipen-prozesuetan etxebizitza hauek berriro gordeko dira.

BIGARRENA.- ESKATZAILEAK

Honako hauek eskatu ahal izango dituzte babes ofizialeko etxebizitzak:

A).- Dauden edo etorkizunean egongo diren pertsona fisiko edo bizikidetzta-unitateek. Bizikidetzta-unitate bat da etxe berean bizi diren edo biziko diren eta ezkontza bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez elkartuta dauden bi pertsona edo gehiagoz osatutakoa. Bizikidetzta-unitate gisa hartuko da, halaber, adopzio lotura bidezko, 3. maila arteko odol-ahaidetasun lotura bidezko edo 2.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

maila arteko ezkontza-ahaidetasun lotura bidezko harremana duten eta etxebizitza berean bizi diren edo biziko diren pertsonak osaturikoa. Ez da kontuan hartuko adiskidetasunagatiko edota komenentziagatiko elkarbizitza.

B).- Dauden edo etorkizunean egongo diren bizikidetzak-unitateak, 3. maila arteko albo-lerroko odol-lotura bidez eta 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasun bidez osatutakoak, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera izan dezaten, beharrezkoa izango da ahaidetasun horrek lotzen dituen pertsona guztiak titularkideak izatea, baldin eta adin nagusikoak baldin badira.

Era berean, etxebizitzaren titularkide izan beharko dute irabazpidezko erregimenean dauden ezkontutako senar-emazteak edota izatezko bikoteak. Ondasunak banantzeko erregimenean dauden ezkontutako senar-emazteen edota izatezko bikoteen kasuan, adjudikaziodunek titularkidetasunaren ehunekoak erabaki ahalko dute.

Halaber, etxebizitzaren titularrek partaidetzaren ehunekoak erabaki ahalko dute euren artean zuzeneko lerroko odol-lotura bidezko ahaidetasun-harremana badute.

Ez da onartuko hasierako eskabidean agertzen diren bizikidetzak-unitateko kideei dagokienez egindako aldaketarik, zozketa egin eta errentamendu-kontratua sinatu artean bizikidetzak-unitate horretako kide-kopurua aldatu eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozesuei buruz xedatutako 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 20. artikuluan jasotako baldintzaren batekin bat etorriko litzatekeen kasuan salbu. Bizikidetzak-unitatearen jakinarazpena zozketa egin ostean eta errentamendu-kontratua sinatu aurretik gertatuko balitz, berriro ere egiaztatu edo frogatuko litzateke bizikidetzak-unitateak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko baldintza guztiak betetzen dituela eta, kasu horretan, egiaztapen horren emaitzari erreparatuko litzaioke.

Pertsona edo bizikidetzak-unitate bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da eta pertsona berak ezin izango du aldi berean bizikidetzak-unitate batean baino gehiago egon. Pertsona batek, eskatzaile gisa edo bizikidetzak-unitate bateko kide gisa, bi eskabide edo bi baino gehiago aurkeztuko balitu, aurkeztutako azken eskabidea besterik ez da onartuko. Aurkeztutako azken eskabide horrek aurretiaz aurkeztu duen beste eskabide bateko bizikidetzak-unitatea aldatuko balu, berau onartzeko ezinbestekoa izango da azken eskabidetik kanpo geratu diren pertsonak baztertze horrekin ados egon daitezela eta uko egite hori idatziz aurkez dezatela.

Banantze edo dibortzio kasuan, eskabidea indibidualki aurkeztu ahal izateko beharrezkoa da eskatzaileak bere egoera justifikatuko duen epai irmoa izan dezala. Harreman horien ondoriozko seme-alabek berorien zaintza duen ezkontidearen edo



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

bikotekidearen bizikidetz-unitatekoak soilik izan ahalko dute, zaintza bi gurasoena den kasuan salbu. Horrela izanez gero, seme-alabek bi gurasoen bizikidetz-unitatekoak izan ahalko dute.

HIRUGARRENA.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. - Adin nagusikoa edo emantzipatua izatea.

2. - Etxebizitza beharra:

Etxebizitza eskatzen duen bizikidetz-unitateko kide guztiek egiaztatu beharko dute ez dutela etxebizitzarik ez jabetzan, ez jabetza soilean, ez lurrazal-eskubidean ezta usufuktuan ere, edozein lekutan dela ere, sustapenaren behin-behineko kalifikazioa eskuratu aurreko bi urteetan.

Prozedura honetatik kanpo geratzen dira etxebizitza libre baten gaineko erosketa atzeratuko kontratu bat sinatu dutenak.

Edonola ere, etxebizitza mota hauen onuradunak izan ahalko dira jabetzan, lurrazal-eskubidean, usufuktuan edo jabetza soilean titularrak izanda ere agirien bidez honako egoeraren batean daudela frogatzen dutenak:

1. Etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago, baldin eta gutxienez behin-behineko kalifikazioa baino bost urte lehenago eskuratua izan bada, eskatzailearen ohiko etxebizitza iraunkorra bada eta azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan, urbanizatutako eta eraikitako ondarearen berritze-egintza babestuei buruzkoan, edo berau ordezkari lezakeen araudian zehaztu gutxienezko bizigarritasun baldintzak betetzen ez baditu.
2. Banaketa- edo dibortzio-prozedura baten ondoren, eskatzaileak beste etxebizitzarik ez baldin badu eta daukan etxebizitza epaiketa bidez beste ezkontidearen etxebizitza gisa jo baldin bada bi urte baino gehiagoko eperako, 2002ko abenduaren 30eko etxebizitza beharrekiko lotutako ezaugarriei buruzko Aginduko 2.1. artikuluan zehazten den datatik zenbatzen hasita.

Ezkontideen ohiko etxebizitza izan den higiezinaren besterendu bada, baldin eta, eskrituraren arabera eta hipoteka kargen ordainketari dagokion zenbatekoa kendu ostean, eskatzailearen partaidetzaren balioak 75.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badu.

Izatezko bikoteen banantzeak tratamendu bera izango du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

3. Etxebizitza edo etxebizitzak oinordetza edo donazio bidez titularkidetasunean eskuratu baditu, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen baditu:
 - Titularkidetasun ehunekoak ezingo dira % 50etik gorakoak izan.
 - Etxebizitzako partaidetzen balioa zein haren transmisioaren bitartez lortutako zenbatekoa ezingo dira 75.000 eurotik gorakoak izan, hipoteka kargen ordainketari dagokion zenbatekoa kendu ostean.
4. Eskatzaileen artean bizikidetz-unitateko kideren batek ziurtatzen baldin badu mugikortasun murriztu iraunkorra duen minusbaliatua dela, baldin eta bere etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegaon badago eta hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzen gaineko arau teknikoak onetsi zituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan sarbideei eta igogailuei buruz zehazturiko baldintzak betetzen ez dituen eraikin batean badago.
5. 70 urte edo gehiagorekin Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen etxebizitza baten titularrak diren pertsonak, baldin eta etxebizitza horrek arlo honetan indarrean dagoen araudiak zehaztu irisgarritasun baldintzak betetzen ez baditu.
6. Bizikidetz-unitate horietako kideren bat Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen eta pertsonako 15 m² erabilgarriko ratioetik beherako guztizko azalera duen etxebizitza baten titularra bada.

Salbuespen hauetakoren batean oinarrituta zozketa bidez etxebizitza babesturen bat beste etxebizitza baten titularra den norbaiti esleituko balitzaio, onuradunak bere etxebizitza utzi beharko du Amorebieta-Etxanoko Udalaren eskuetan, eta Udalak etxebizitza ardura hartuko ez balu, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eskuetan geratuko litzateke, 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, etxebizitza beharrarekin lotutako ezaugarriei eta berorren aldaketei buruzkoak, zehaztu baldintzetan.

3.- Erroldatzea:

Etorkizuneko titularretakoren batek ondoz ondoko azken **hiru urteetan** Amorebieta-Etxanon erroldatuta egon beharko du, prozedura hau erregulatzen duen



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Alkatetza Dekretua sinatu zen dataren aurreko bost urteetatik zenbatzen hasita, eta errentamendu-kontratua formalizatu arte bertan erroldatuta jarraitu beharko du.

Aurreko baldintza bete ezean, bertan bizi dela justifikatzeko beharrezkoa izango da etorkizuneko titularretakoren bat prozedura hau erregulatzen duen Alkatetza Dekretua sinatu zen datan Amorebieta-Etxanon erroldatuta egotea eta errentamendu-kontratua formalizatu arte eta 15 urtetan zehar bertan erroldatuta egon izana, urte horiek ondoz ondokoak izan ez badira ere.

4.- Gehienezko eta gutxienezko diru-sarrerak:

Etorkizuneko titularrak edo titularrek 2007an gutxienez 3.000 euroren eta gehienez 35.000 euroren artean haztatutako diru-sarrerak izan beharko dituzte, integratu beharreko zerga-oinarriaren eta etxebizitza eskatzen duen bizikidetzaren unitatearen osakeraren arabera.

Diru-sarreraren haztapena honako ezaugarrien arabera izango da:

Haztatu beharreko elementuak:

- Babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan zehaztutakoaren arabera diru-sarrerak.
- Etxebizitzan biziko den bizikidetzaren unitateko kide kopurua. Ez da kontuan hartuko adiskidetasunagatiko edo komenentziagatiko bizikidetzak.
- Gutxienez diru-sarreraren % 20ko ekarpena egiten duen bizikidetzaren unitateko kide kopurua.

Familiaren diru-sarreraren haztapena ondorengo formularen arabera egingo da:

$$DH = DA \times K \times A$$

Ondorengoak direla:

DH: diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

DA: babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan zehaztutakoaren arabera diru-sarrerak.

K: bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera haztatzeko koefizientea.

A: gutxienez diru-sarrera gordinen % 20ko ekarpena egiten duen bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera haztatzeko koefizientea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Haztapen-koefizienteak honakoak izango dira:

K:

- 1 kide: 1,00
- 2 kide: 0,95
- 3 kide: 0,90
- 4 kide: 0,85
- 5 kide: 0,75
- 6 kide: 0,65
- 7 kide: 0,55
- 7 kide baino gehiago: 0,50

A:

- 1 hartzaile: 1,00
- 2 hartzaile: 0,90
- 3 hartzaile: 0,85

Diru-sarreraren haztapenak ez du inolaz ere aipatu haztapena dela-eta ezarritako gutxienerako diru-sarreretara iristen ez diren eskatzaileen kanporaketa baldintzatuko.

Mugikortasun murriztu iraunkorra duten minusbaliatuek eta minusbaliatu psikikoek ez dute gutxienerako sarrerarik egiaztatu behar.

Era berean, genero-indarkeriaren biktimaren egoera egiaztatzen duten emakumeek ez dute gutxienerako diru-sarreraren baldintza bete beharko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2006ko urriaren 4an emandako Aginduan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ekintza positiboekin lotutako neurriei buruzkoan, zehaztu bezala.

Diru-sarreraren % 90, gutxienez, lan-etekinen edo/eta ekonomia-, lanbide- edo arte-jardueretako etekinen edo beken ondoriozkoa izan beharko da. Pentsiodunek ez dute baldintza hori bete beharko.

Herri-administrazioetako gizarteratzeko politiken ondoriozko errentak zenbatuko dira.

Hasierako errenta maxima finkatzeko, erretamendu-kontratua sinatzerakoan diru sarrerak kontuan hartuko dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

5. Egin diren azken bi zozketatan jabetza erregimenean babes ofizialeko, sustapen publikoko edo pribatuko beste etxebizitza baten adjudikazioduna ez izatea. Ez dute baldintza hori bete beharko zozketa egin eta errentamendu-kontratua sinatu artean langabezia-egoeran gera litezkeen eta horren ondorioz etxebizitza ordaindu ezingo luketen adjudikaziodunek, beren egoera justifika badezakete betiere.

6. Salerosketako kontratuaren eskritura eta formalizazioa.

LAUGARRENA- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2008ko irailaren 28an hasi eta 2009ko azaroaren 13an amaituko da.

Eskabideak jasotzeko eta aurkezteko lekua etxebizitza bulegoa izango da, Zelaieta Zentroan kokatutakoa, Gazte Informazioaren sailean (2. solairua).

BOSGARRENA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- A) Udaletxean normalizatutako eskabidea.
- B) Behar bezala beteta entregatu beharko den inprimaki espezifiko, honako hauek jasoko dituen:
 - Oinarri hauetan eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuei buruzko araudian zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla.
 - Eskatzaileak nahiago duen zozketa taldea, hots, I. taldea edo II. taldea.
- Bi inprimakiak Zelaieta Zentroan kokatutako etxebizitza herri bulegoan eskuratu ahalko dira.
- C) Eskatzailearen edo eskatzaileen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- D) Banantze edo dibortzio kasuan, hitzarmen arau-emailea eta epai irmoa, horrela badagokio seme-alaba adingabeen zaintza justifikatzen duena.
- E) Eskatzailea edo eskatzaileak ezkongabeak badira, hitzez hitzezko jaiotza-ziurtagiria.
- F) Minusbaliatua dela egiaztatzeko, mugikortasun urritu iraunkorreko minusbaliotasunaren maila eta izaera jasotzen dituen ziurtagiria, erakunde eskudunak egindakoa.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

G) Dagoenekoz badagoen bizikidetza-unitate baten kasuan, Familia-liburuaren, Bizikidetza-ziurtagiriaren edota Izatezko bikoteen erregistroan izatezko bikote gisa duten izen-emate ziurtagiriaren fotokopia.

SEIGARRENA.- TALDEAK ERATZEA

Sustapenean mugikortasun urritu iraunkorra duten pertsonentzako 3 etxebizitza egokituta daudela kontuan hartuta, Amorebieta-Etxanoko Udalak, eskabideetan adierazitakoari jarraiki, zozketarako bi talde sortuko ditu:

* **I. taldea:** etxebizitza egokitueterako eskabideak (3 unit.)

- 1) Gurpil-aukien erabiltzaileak. (A)
- 2) Noraezean ibiltzeko 2 makila behar dituztenak. (B)
- 3) 7 eta 12 puntu bitartean izatea.

* **II. taldea:** gainerako etxebizitzetarako eskabideak (46 unit.)

II. taldea, era berean, bi taldetan banatuko da:

- 1) Logela 1 duen etxebizitza errentan hartu nahi dutenak. (7 etxebizitza)
- 2) Logela 2 dituen etxebizitza errentan hartu nahi dutenak. (39 etxebizitza)

ZAZPIGARRENA.- ZERRENDAK EGITEA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Udalak onartutako eskabideen behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu, taldetan (I. taldea eta II. taldea) banatuta, eta alegazioak jartzeko epe bat irekiko du, nahi duenak beharrezko erreklamazioak aurkez ditzan.

I. taldeko etxebizitzak esleitzeko 1 kupoari dagozkion eskabideek lehentasuna izango dute eta kupo honetan esleitzeko etxebizitza baino eskatzaile gehiago baleude, etxebizitzak aipatu eskabideen artean zozketatuko dira. Aitzitik, kupo honetan esleitzeko etxebizitza baino eskatzaile gutxiago baleude, hutsunea 2. kupoko eskabideekin beteko litzateke, eta horrela hurrenez hurren 3. kupora iritsi arte.

Behin I. taldeko etxebizitzak beteta daudela, mugikortasun baremoaren arabera zehaztutako lehentasun-ordenari jarriki, I. taldeko etxebizitzak esleitzeko zozketan parte hartu izan ezin duten minusbaliatu eskatzaileak II. taldeko etxebizitzan zozketan sartuko dira, talde honetako eskatzaileen baldintza berekin.

II. Taldeko etxebizitzak esleitzeko, kupo bat aukeratuko da, bai logela bat duen etxebizitza, bai logela bi dituen etxebizitza, ezinezkoa kupo biak aukeratzea.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Alegazioak konpondu ostean behin betiko zerrendak argitaratuko dira, kupotan banatuta berriro ere, agiri honetan zehaztu datan.

ZORTZIGARRENA.-ETXEBIZITZA ESLEITZEKO ZOZKETA

49 etxebizitzak notario aurreko zozketa bidez esleituko zaizkie taldeetako eskatzaileei, ekitaldi publikoan, Udalak Zelaieta Zentroan behin betiko zerrendak argitaratzen dituen unean zehaztu datan eta lekuan.

Zozketa I. taldeari dagozkion etxebizitzak eskabideetatik hasiko da. Amaitu ostean, zozketa II. taldeko eskabideekin egingo da.

Hasierako adjudikaziodunen zozketa amaitu ostean, eta esleitu beharreko etxebizitza baino eskabide gehiago baleude, soberan dauden eskabideekin talde bakoitzerako itxaronzerrenda bat sortuko da, eta taldeok kupotan banatuko dira, adjudikaziodun titularrentzako zehaztutako prozedura bera jarraituz.

Itxaronzerrenda bakoitzeko eskatzaileen kopurua talde bakoitzari esleitutako etxebizitza kopuruaren % 50ekoa izango da.

Kupo bakoitzeko itxaronzerrenda espezifikoren bat agortuko balitz, kupo bakoitzeko azken adjudikaziodun titularra izendatzen duen zozketako azken bolaren zenbakiak hurrengo ordezkoa zehaztuko du, azken horren hurrengo zenbakitik hasita, eta hortik aurrera goranzko eta korrelaziozko ordenean, saritutako zenbakiak eta uko egiteak salbuetsita. Itxaronzerrenda horiek ez dira publikoak izango eta fede-emaile publiko esku-hartzailearen eskuetan geratuko dira eskusiboki.

Arrazoia edozein dela ere, esleipenen baten kontratuaren uko egite, baja edo suntsiarazpen kasuan, adjudikaziodun berriak izendatuko dira zozketaren bidez egindako talde bakoitzeko itxaronzerrendaren orden zehatzaren arabera. Itxaronzerrenda indarrean egongo da sustapeneko etxebizitza kopurua agortu arte.

I. taldean eskabideak baino esleitzeko etxebizitza gehiago baleude, soberan daudenak zozketa egunaren eta etxebizitzak behin betiko kalifikazioaren artean ager litezkeen eskabideekin beteko dira. Etxebizitzak baino eskabide gehiago baleude, berriz, zozketa publiko baten bitartez etxebizitza horiek esleituko lirateke, Oinarri hauetan erregulatzen den prozedura beraren arabera. Halaber, behin betiko kalifikazioaren egunean etxebizitza baino adjudikaziodun gutxiago egongo balira, soberan daudenak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eskuetan jarriko lirateke.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

BEDERATZIGARRENA- BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEA

Dokumentu bidezko egiaztatze edo justifikatze hau zozketatutako 49 etxebizitzaren adjudikaziodun guztiei eskatuko zaie, zozketa amaitu ostean, erroldatze-baldintza izan ezik, berau udalak ofizioz egiaztatuko baitu behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik.

Egiaztatze-epe hau beranduago zehaztuko da eta Zelaieta Zentroan dagoen etxebizitza bulegoan aditzera emango da.

Etxebizitza mota hauek eskuratzeko beharrezko baldintza guztiak egiaztatzen ez baditu, adjudikaziodunak berehala galduko du bere eskubidea eta ezingo du Udalak edozein etxebizitza babesturekin lotuta antolatzen dituen hurrengo bi zozketetara aurkeztu.

Adjudikaziodunak baldintza guztiak bete beharko ditu esleitutako etxebizitzaren errentamendu-kontratua egiten denera arte.

Etxebizitza alokatzeak ez du esan nahi etorkizuneko salmenta-sustapenetan eta babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu-sustapenetan izena eman ezin denik.

Jarduketa publikoko kontratua duen etxebizitzaren errentariari babes ofizialeko beste etxebizitza bat (alokairu- edo erosketa-araubidean) esleitzuz gero, dagokion kontratua sinatu aurretik, errentan zuen etxebizitzan zor zuen diru-kopuru osoa guztiz kitatu duela egiaztatu beharko du.

AMARGARRENA.- ZOZKETATIK KANPO GERATZEKO ETA ESLEIPENA EZEZTATZEKO ARRAZOIAK

1.- Oinarri hauetan eta Eusko Jaurlaritzak BOE-ei dagokienez duen araudian zehaztutakoa ez betetzea.

2.- Udalak adjudikaziodunei beren eskabidean zehaztu helbidera bidaltzen dizkien jakinarazpenei ezarritako epean ez erantzutea.

3.- Sustatzaileak salerosketako eta eskritura publikoko kontratua sinatzeko egindako jakinarazpenei 15 eguneko epean ez erantzutea, sustatzaileak kontratua sinatzeko zehaztutako datatik zenbatzen hasita.

4.- Sustatzaileari salerosketako kontratuan zehaztu zenbatekoak ez ordaintzea.

Amorebieta-Etxanon, 2009ko irailaren 23an